

090127 BERRIA

2009/1/27 Plataforma Macrocarcel Zubieta <makroespetxerikezgi@gmail.com>
Gaurko Berrian aterata:

http://www.berria.info/paperekoa/harian/2009-01-27/002/009/Hegoaldeko_kartzeletako_ziega_kopurua_bikoiztu_nahi_dute_2012rako.htm

Hegoaldeko kartzeletako ziega kopurua bikoiztu nahi dute 2012rako

Langraiz Okako, Iruñeko eta Zubietako kartzelen egitasmoak «aurreikusitako epeen arabera» gauzatzen ari dira

2.000 ziega baino gehiago izango dira espetxeetan, egitasmo berriak betez gero

Jon Rejado-Amaia Alvarez

Gasteiz-Iruñea

2.000 ziega baino gehiago egongo dira Hego Euskal Herrian lau urte barru, Espainiako Gobernuaren asmoak gauzatuz gero. Egungo kartzela azpiegiturak berritzeko aitzakiarekin, ziega kopurua bikoiztu egingo dute 2012 bitartean. Orduan bukatu nahi dituzte Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako espetxe berrien egitasmoak. Langraiz Okako espetxe zaharra irekita mantentzen badute, Hegoaldeko ziega kopurua ia hirukoiztu egingo da.

Espainiako Gobernuak egindako Espetxeen Amortizazio eta Sorrera Planaren barruan daude kartzela berriak, eta 1.896 ziega berri izango dituzte. Egitasmo berriak gauzatzean Martuteneko eta Iruñeko kartzela zaharrak itxiko dituztela aurreratu du Espainiako Gobernuak. Basauriko espetxearen etorkizuna baino ez dago garbi, eutsi egingo baitiete hango 116 ziegei. Ziega horiek guztiak zigorraldi jarraituak beteko dituzten presoentzat lirakeke, hirugarren graduak edo asteburuko zigorrak beteko dituztenak Gizarteratze Zentroetako ziegetara bideratuko baitituzte.

Berria eta zaharra hizpide

Langraiz Okako kartzelaren egitasmoa albiste iturri bihurtu zen aurreko astean. Eusko Jaurlaritzak ingurumen eraginari buruzko azterketa egiteko eskatu zion Espainiako Gobernuari, eta eskaera aintzat hartzen ez badu administrazioarekiko auzietara joko duela iragarri zuen. Eusko Jaurlaritzaren erabakiarekin bat egin du Arabako Foru Aldundiak, eta Mikel Mintegi Ingurumen diputatuak hilabeteetan izan duen jarrera babestu.

Langraiz Okako kartzela berriaren aurka dagoen plataformak Eusko Jaurlaritzaren erabakia ona dela deritzo, baina aukeratu duen unea kritikatu zuen atzo emandako prentsaurrekoan. Hori egiteko denbora luzea izan duela gogoratu zuen. Lanak 2008ko irailaren 1ean hasi zituzten eta abenduaren 19ra arte Espainiako Gobernuak ez zuen egitasmoa ingurumen eraginari buruzko azterketaz salbuetsi. «Tarte horretan Ertzaintzarekin bertan agertu eta lanak gelditzeko aukera izan dute, lanak legez kanpokoak zirelako», azpimarratu du Cesar Manzanosek, plataformako kideak. Erabakiak hauteskunde kutsua duela uste du.

Eusko Jaurlaritzak helegitea jartzen ez badu plataformak egingo duela iragarri du Manzanosek. Horren bidez kasua argitu bitartean lanak gelditu egin beharko direla deritzo Manzanosek. Ordea, Eusko Jaurlaritzako iturrien arabera, ez du zertan horrela izan, egoera bertsuan epaileek era bateko eta besteko erabakiak hartu dituzte eta. Bide horretaz gain, Europako auzitegieta jotzeko aukera aztertu du plataformak, Europa mailako ingurumen legeek babestu egiten baitute kartzela berria egin nahi duten lur eremua, besteak beste.

Kartzela berriaren inguruko eztabaida bukatzen ez den bitartean, espetxe zaharraren etorkizuna kolokan jarraitzen du. Salhaketaren ustez, ez dute itxiko, eta, horregatik, zaharberritze lan handia egin dute azken hilabeteetan. Dena den, zehazteke dago oraindik zer erabilera emango dioten. Nolanahi ere, Iruña Okako alkateak, Jose Javier Martinezek (PSE-EE), kartzela itxiko dutela uste du, eta horren ostean eztabaidatuko dela zer erabilera eman zehazteko.

Iruñeko kartzela, zulo batean

Aurreko astean hasi ziren Santa Luzia-Soltxate eremuan (Iruñeko iparraldean) Nafarroako espetxe berria eraikitze lanak prestatzen. Eremua zehaztu dute jada, eta lanak, ofizialki, apirilean hasiko dira. Espetxe hori eraikitze ere, Espainiako Gobernuak ingurumenean eragin ditzakeen kalteak neurtzeko azterketarik ez du egingen. Eta Santa Luzia muinoa babestua dago. Zehazki, babestutako eremuaren %40 okupatuko du espetxeak. PSOEko gobernuaren asmoa espetxea 2012an prest egotea da.

Espainiako Diputatuen Kongresuak abenduaren 28an erabaki zuen ingurumen ikerketa ez egitea, eta horren orde, kartzela eraikitze 20 metroko zuloa egingen dutela adierazi du Iruñeko Udalak. Hau da, ingurumenean eragin ditzakeen kalteak saihesteko, kartzela muinoko kotarik baxuenean eraikitze asmoa dute, modu artifizialean zulo bat eginez. Lur horiek mugitzeko lanek, gainera, 8,9 milioi euro balio dute, eta proiektu guztiak, berriz, 85 milioi euro. 2005ean Iruñeko Udaleko osoko bilkura batean kartzela berria Santa Luzian egitea onartu zuten UPN, PSN eta CDNk.

Ingurumen azterketa ez egiteko arrazoia, Kongresuan erabakitakoaren arabera, kartzela egiteko «presa» da. «Espainian gero eta preso gehiago daude eta Iruñeko espetxea txiki geratu da», dio Espainiako Barne Ministerioak egindako eta Kongresuak onartutako testuak.

Bestalde, paisaia babestua ez ezik, Santa Luzian aztarnategi historikoa dago, Kulturarako Intereserako Ondasun izendatutakoa, gainera. Kristo aurreko 1000. urteko aztarnak daude han. Toki horri kalte ez egiteko, dena dela, azterketa egitea erabaki du Espainiako Gobernuak.

Ingurumenean eragin ditzakeen kalteak neurtzeko azterketa egiteko eskatzeko, Sanduzelaiko Auzokideen Elkarteak dagoeneko iragarri du Espainiako Auzitegi Gorenera joko duela. Izan ere, 2007an Espainiako Ingurumen Ministerioa azterketa hori egiteko konpromisoa adierazi zion elkarteari, eta Iruñeko Udalak eta Nafarroako Gobernuak ere ikerketa egitea beharrezkotzat jo zuten orduan. Aurreko astean lanak hasteko eremua zehazten hasi zirenean, UPNko diputatu Carlos Salvadorrek Jose Luis Rodriguez Zapateroren gobernuari galdetu zion ea lan horiek hasteko aginduaren berri zuen, «beharrezko pauso administratiborik bete gabe hasi dituzte-eta lan horiek». Iruñeko Udalak ere beharrezko tramiteak ez betetzea leporatu dio Espainiako Gobernuari. Nafarroa Baik, berriz, ingurumen azterketa egiteko eskatzeko, helegitea jarri du Auzitegi Gorenean. Ezker abertzalea ere proiektuaren aurka azaldu da.

Kartzelaren ziega kopuruak ere polemika eragin du; Espainiako Barne Ministerioak beti esan du espetxea 504 presorendako izanen zela; orain, baina, proiektua eraikiko duen enpresak dio 628 ziega izanen dituela. 1.256 presorendako tokia egonen da, beraz. Kartzela hori Nafarroarendako «erabat neurrigabekoa» dela esan du NaBaik. Bestalde, Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari Elma Saizek azaldu du kartzela «interes orokorrerako proiektua» denez -hala izendatu du Espainiako Kongresuak- prozedura «berezia» daukala.

Horretaz gain, Espainiako Gobernuak Santa Luziako lurak lortzeko modua ere kritikatu izan da. Eremu horrek 25 jabe zituen, Iruñeko Udala tartean. 2007an Espainiako Gobernuak lur horiek erosteko metro koadroko zortzi euro ordaintzea eskaini zuen. Jabeek eskaintza baztertu zuten eta, harrezkero, lurak desjabetzen ari da pixkanaka PSOEko gobernuak. Iruñeko Udala izan ezik, beste jabeek dagoeneko jo dute Desjabetzeen Auzitegira.

Zubietakoa, isilpean

Zubietako egitasmoa ematen ari da zeresan gutxien azkenaldian, Martutene ordezkatu ahal izateko akordioa aspalditik dagoen arren Espainiako Gobernuaren eta Donostiako Udalaren artean. Gaur egun lurrak desjabetzen ari direla azpimarratu du Eñaut Zuriarrainek, Zubietako alkateak. Desjabetzeak testuinguru zabalago baten barruan egiten ari dira, ordea. Errauste planta, espetxea eta industrialdea lur eremu bertsuan kokatu nahi dituztenez, egitasmoak ezberdindu gabe egiten ari dira lurren desjabetzea. Testuinguru horretan kartzelaren inguruko berririk ez dagoela nabarmendu du Zuriarrainek.

Hain dago isilpean, ezen oraindik Espainiako Espetxeetako Zuzendaritzak ez baitu argitu zenbat ziega izango dituen. Egitasmoaren hasieran hitz egindakoaren arabera, Iruñeko egitasmoaren modukoa izango da, 504 ziegakoa. Horretaz gain Arrats elkarteak ohartarazi du ziega horiek egungoak baino handiagoak direla, hamabi metro koadro ingurukoak. «Hori, gure ustez, jende gehiago sartzeko prestatuta dago», azaldu du Jose Mari Larrañagak, Arratseko kideak.

Hego Euskal Herriko egungo kartzelen egoera oso eskasa dela onartzen dute alde guztiek, baina espetxe eredu berarekin jarraitzeak zentzurik ez duela deritzo Jose Mari Larrañagak, Arratseko kideak. Horren aurrean Arratsek aspalditik aldarrikatzen duen bideari eusten dio gaur egun ere. Gizartean dauden arazo batzuen ondorioz -osasun mentala, drogamenpekotasuna, tratu txarrak...- betetzen ari dira kartzelak, eta arazo horiek konpontzen ez badira, hemendik lau urte barru herri bakoitzean kartzela bat egon beharko du. «Horri beste modu batean aurre egiteko bideak daude, bide merkeagoak eta eraginkorragoak; aukera horiek ez dituzte ikusi nahi eta ez dakigu zergatik, jakinda lau urte barru beste hamabi espetxe ireki beharko dituztela preso guztiak hartzeko».

Gizarteratzeko zentro bana egongo da probintzia bakoitzeko

2012rako, hiru kartzela egitasmo berriekin batera, probintziako Gizarteratze Zentro bana egin nahi du Espainiako Espetxeetako Zuzendaritzak Hegoaldean. Hirugarren graduan dauden presoek hara joango dira gaua edo asteburua ematera. Egun hirugarren graduan daudenak espetxeetara joaten dira, eta horrek gainezkatzeko larria ekartzen du. Gipuzkoako zentroaren kokapena argitzeke dago. Odon Elorza Donostiako alkateak esan du bere ustez zentroa ez dela Donostian egingo. Iruñeko Gizarteratze Zentroa kartzela berriaren ondoan egongo da eta 50 ziega izango ditu. Zentro horiek «itxurak egiteko» modu bat direla deritzo Arrats elkarteak, preso eta preso ohiei arreta ematen dien elkarteak. Gizarteratzea indartzeko egitasmo moduan aurkeztu arren Espainian dauden zentroak asteburuko zigorrak edo hirugarren graduan daudenekin betetzen dituztela deritzo Jose Mari Larrañagak, Arratseko kideak. «Gizarteratzea ezin duzu egin ehun pertsona edo gehiago eraikin batean sartuta». Arabako eta Bizkaiko zentroak non egin ez dute erabaki oraingoz.

1.682

Hego Euskal Herrian espetxeratuak: 2009ko urtarrilaren 16an 1.682 pertsona zeuden Hego Euskal Herrian espetxeratuak. Aurreko urtean 1.632 preso zeuden Langraiz, Martutene, Basauri eta Iruñeko kartzelatan, eta duela bi urte 1.541 ziren.

Hegoaldeko gaur egungo kartzelak

Langraiz Oka: 1981. urtean inauguratu zuten espetxea; aldez aurretik atxiloaldi prebentiboetarako eraikin txikiago bat zegoen. 557 ziega ditu gaur egun.

Basauri: 1964. urtean eraiki egin zuten eta 116 ziega ditu gaur egun. Kartzela hori ez dute itxiko, Hego Euskal Herriko hiru egitasmoak gauzatu arren.

Martutene: 1948. urtean eraiki zuten Martuteneko espetxea, eta 163 ziega ditu. Gipuzkoako kartzela berria egiten dutenean, bota egingo dute eta lur eremu hori saldu egingo dute.

Iruñea: 1901. urtean egin zuten Iruñeko kartzela, eta 100 ziega ditu. Euskal Herriko kartzela zaharrena

da eta asteburuetan bi preso baino gehiago dago ziega bakoitzeko.

Kartzela berriak (SIEPen datuak)

LANGRAIZ OKA

Ziegak: 720.

Erregimen itxia: 36.

Sarrerak, irteerak: 56.

Erizaintza: 64

Komunikazioak: 35 mintzaleku, 16 bisita gela eta 16 gela bikotekidearekin bisita izateko.

Eremua: 502.000 metro koadro.

Eraikitakoa: 81.427 metro koadro.

Solairuak: 4.

IRUÑEA

Ziegak: 504.

Erregimen itxia: 32.

Sarrerak, irteerak: 44.

Erizaintza: 44.

Komunikazioak: 26 mintzaleku, 12 bisita gela eta 12 gela bikotekidearekin bisita izateko.

Eremua: 224.400 metro koadro.

Eraikitakoa: 70.707 metro koadro.

Solairuak: 4.